

Añarbe baso erreserbako arotz hegodunak

TOMAS AIERBE

Añarbeko haritz eta pago basoan, paisaia irekia desagertu egiten zaigu. Hor aritzen dira birigarroak, garraztarroak, zozoak, txantxangorriak, txepetxak, kaskabeltzak, amilotxak, garrapoak, erregetxoak, pinpinak, euli-txoriak eta abar kantari bakoitza bere bikotearekin bere eremutxoa zaintzen, inolako “intrusorik” sar ez dadin beraien ehiza eta bazka lekuetara.

Basoetako arotzak

Badira baina, txori kantuz gain beste soinu batzuk sinfonia honetan tartekatzen direnak, perkusio atala, hain zuzen ere. Mokoarekin enborra joz soinu ugari egiten duten hegaztiak dira eta **pizidoak** deitzen zaie. Denok uler dezagun pizidoak, enbor zulatzaileak dira, zurginak edo “pájaro loco” moduko hegazti arotzak.

Familia honetako hegaztiak enborraren zurtoinean zutik egoteko gaitasuna dute, hankako 4 behatzak binaka jarriak baititu, bi goian eta bi behean. Gaitasun honek hainbat aukera irekitzen dizkie. Alde batetik, elikatzeko enborraren eremua erabiltzeko aukera ematen die bertako inurri, ar eta bestelako intsektuak harrapatuta. Beste aldetik, postura bertikal honek mokoarekin enborra joz bertan zuloa egiteko aukera ematen die.

Añarbeko sei okilak

Pizido guztiek ez dituzte ahalmen berdinak. Batzuek ez dute indarririk zuloak eraikitzeko, lepituzulia kasu, beste batzuek zuloa egiteko gaitasuna badute baina egur bigunetako enborretan, gaixorik edo hilda dauden zuhaitzetan esate baterako (okil handia edo ertaina). Azkenik, badira zulatzeko ahalmena muturreraino eraman dutenak eta zuhaitz bizi trinkoan zulo handi bat eraikitzeko gaitasuna dutenak. Azkeneko kasu honen adibide nabariena **okil beltza** da.

Okilak orokorrean eta okil beltza bereziki mokoarekin enborra kolpatzeko prestatuta daude. Ematen dituzten kolpeak ez dira txantxetakoak.



Okil beltza (*Dryocopus martius*).



Lepitzulia (*Jynx torquilla*).

Mokoa eta burmuina oso gertu daudenez elkarrekiko nolabaiteko isolamendua eskatzen du, burmuinak lesiorik jasan ez dezan. Okilak egin duena da burmuina likido batez inguratu, nolabait kolpe horietatik isolatuta geldi dadin. Arrazoi berdinarengatik, mokoaren hasieran malguki moduko bat du. Mihia mokotik haratago irteten zaio zuloak arakatzeko eta itua eranskor bat du bertan inurri eta bestelakoak itsatsita gelditu daitezten. Ezpalak askatzen direnean begietara joateko arrisku bizia egonik, kolpe bakoitzean begiak babesten dituen huntz babesle batzuk ere aktibatzen dira aldi berean.

Esan dugun moduan, enborrari ematen dizkion kolpeak handiak dira. Horretarako lepo gaineko giharrak oso garatuak ditu beste hegaztien aldean. Gorputzeko giharrak lepo gainean garatzeak beste toki batzuetan murriztea ekarri du, esate baterako hegokoak. Esango genuke okilak, orokorrean ez direla oso hegalari trebeak, ezta behar ere. Izan ere beraien bizitza basoan eginik nagusiki, ez dute distantzia handietara mugitu behar eta bestalde ez dute abiadura handirik harrapatu behar ehizarako edo harraparietatik ihes egiteko, baso barruan nahiko ezkutaleku baitaude. Kol-

peak eraginkorrak izateko gorputza ondo asentatuta eduki behar du. Horretarako ditu diseinatuak atzamarrak eta isatsa. Honen lumak oso gogorrak dira gorputza enborren kontra ondo pausatuta egon dadin eta balantza egin ez dezan.

Baina okil guztiek ez dute zuhaitz bizi baten enborra zulatzeko gaitasunik. **Lepitzuliak**, esate baterako, ez dute hainbesteko indarririk mokoan. Hauek habia egiteko, orokorrean lehendik egingako zuloak, zartadurak edo zirrikituak erabiltzen dituzte.

Lepitzulia izango dugu, seguruenik gure okilen artean arraro edo bitxiena. Eta zergatik? Lepoa erabat biratzeko ahalmena duelako. Hau da, burua 180º atzeraka jartzeko trebezia du. Azken hau erabili izan du harrapariaren batek edo gu geuk zuloan ezustean topatutakoan. Burua biratzen hasten da buruko luma guztiak harrotuta dituela, ziztuka, lepoa gora eta behera erabiltzen duen bitartean. Hau da harrapariak uxatzeko erabiltzen duen modua, gure zelai inguruetako zuhaitz korrotxoetan udaberrik aurrera hegazti hau atzematea ez baita oso zaila. Eta udaberri eta udaran entzungo dugu, negua Afrikan pasatzen baitu. Hau da gainontzeko okilengandik bereizten dien beste



Okil berdea (*Picus viridis*).

ezaugarria. Azkenik, bere familia kideak ez bezala, lepitzuliak oso kolore diskretuak ditu. Enborrarendik bereiztea kosta egiten da eta askotan gertatzen da oso metro gutxitara eduki pausatuta, kantari hasi, begiratu eta ez izan gai ikusteko.

Okil berdeak, aldiz, oso kolore deigarriak ditu. Goialde berde horitsu batek bular eta hego aldeak pikarta estaltzen du, eta denen gainetik buru gainean kapela gorri deigarria azaltzen zaio. Hain kolore biziak eduririk ez zaio gustatzen berarengandik oso gertu egotea eta berehala urrutiratzen da edo enborraren atzean ezkutatzen da. Mokoak ez du okil beltzarena bezain indartsua eta ondorioz habia egiteko nahiago izaten du lehortzen hasitako zuhaitzak erabili.

Azkenik badira 3 okil, orain arte aipatu ditugunak baino txikiagoak. Hirurek kolore antzekoa dute: txuri beltz pikarta gorri ukitu batekin. Okil hauek, okil handia, okil ertaina eta okil txikia dira eta filogenetikoki elkarrengandik gertu daude, genero berekoak baitira (*Dendrocopos*). Baina ugaritasun alorrean alde nabarmena dago hiruren artean.

Okil handia da dudarik gabe ugariena. Baso itxia du gustuko, baina mota desberdinetako ba-



Okil handia (*Dendrocopos major*).

soetan aurki dezakegu, bai hostozabaletan zein eta koniferoetan. Zulo borobil-borobila egiten du eta askotan lehortzen ari den enborra erabiltzen du.

Okil txikiari aldiz ez zaio baso itxia gustatzen. Nahiago ditu tartekatutako enbor handiko zuhaitz zaharrak. Hau da, adehesatutako baso irekiagoak ditu gustuko; hori bai, beti hostozabalak aukeratzen ditu, ia sekula ez pinudiak. Okil guztietan txikiena da.

Añarbeko zeruetako bitxia


Okil ertaina da une honetan Añarben dugun harri bitxia. Okil hau oso zorrotza da bizilekua aukeratzeko. Ez da edozer gauzarekin konformatzen. Hariztiak edo ameztiak gustatzen zaizkio, baina ez dozena bat zuhaitzen korrotxoak, hektarea mordoxka dituzten eremuak baizik, eta zuhaitz helduak tartekatuta dituzten eremuak, gainera. Horrelako haritz edo ametz sailak topatzea ez da erraza Gipuzkoan. Eta Añarbeko Baso Erreserban dugu, hain zuzen, Gipuzkoako hariztiarik handiena (haritz kanduduna, *Quercus robur*). Ez da orduan kasualitatea izango okil ertainaren Gipuzkoako lehenengoetako aipuak Añarben iza-



Okil txikia (*Dendrocopos minor*)



Okil ertaina (*Dendrocopos medius*)



Okil ertainak Iberiar penintsulan eta Frantzia hegoaldean duen banaketa.

tea (Irungo Endaraz gain). Oso zaila izan arren, topatu dira ale batzuk Añarbeko basoan. Oraindik umatu dutenik ez da baieztatu, baina litekeena da hurrengo urteetan hori ere baieztatzea. Aipu hauen garrantzia adierazteko ondoan azaltzen den mapa ikusi besterik ez dago.

Mapak espezie honek Iberiar Penintsulan duen banaketa erakusten du eta banaketa ikus daitekeenez Kantabriako Mendilerrera, Arabako Izkiz ingurura eta Piriniotako puntu isolatu batzuetara mugatzen da. Beraz azkenaldiko aurkikuntza honen garrantzia ez da makala.

Ez dira berri txarrak, bada, ingurumenaren alorrean. Azken urte hauetan bada makina bat hondamen egina naturan eta bioaniztasunean. Baina bestalde kontserbazio alorrean basoen egoera hobetu da. Baso heldu eta konplexuen presentzia handitzen ari da, ustiaketa asko murriztu da eta basoak "abandonatu" egin dira. Merkatal ustiaketaren falta honek egur hila ugaritzea ekarri du eta honekin batera baita hainbat inurri, zomorro, kakalardo xilofago eta abarrena ere. Okilen bizitzeko baldintzak beraz hobetu egin dira. Batez ere baso itxia gustatzen zaienenak, okil handia eta okil beltza kasu. Zuhaitzi irekiagoak gustatzen zaienen kasuan ez da hain garbia hobekuntza. Lepitzulieren, okil berdearen edo okil txikiren kasuan ez da ikusten populazioen hazkunde ikusgarririk. Beharbada populazioen tamainak egonkor mantentzen du edo litekeena da behera egin izatea; aztertu beharko litzateke.